

Asisko gutuna

2018ko uztaila. 1. printzipioa. Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

117. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Lehenengo printzipio honetan Jainkoak begiraten gaituen begiradaz begiraten ikasi dugu, Berak errealitatea begiraten duen begiradaz ikusten. Eta horretarako, ikasleek Jesusi irakatsiezaguzu otoitz egiten eskatu zioten bezala, gu “Jauna, irakatsiezaguzu maitatzen” eskatu beharrean gaude.

Gogoetarako gaia

Jainkoa sorkarrietan sumatzeko

Toni Catalá jesuitak gogoeta batean esaten digu, errealitateari, inguruneari, pertsonari... zuzentzen diegun begirada juzgugilea dela normalki, nahiz eta guk begirada erlijiosoa dela uste izan. Eta Simon fariseuaren adibidea ematen digu. Jesus Simon fariseuaren etxean izanik, hiriko emakume bekataria bertan sartzean, biek ala biek emakume berari begiraten diote, baina ez dute errealitate bera ikusten. Fariseuak portaera “moralak” ikusten ditu, Jesusek Biziairen Jainkoaren sorkari bat, lur joa. Jesusen begirada ez da erlijiosoa, ebanjelioaren arabera baizik. Eta konturatzen gara, Jesusen eta Simonen begiradek praktika ezberdinei ematen diela bide.

Gogoeta horren hari beretik, Francesco Carnelutti jurista italiarraren aipu hau daukagu: “Nire begien aurretik pasa dira hiltzaileak, bortxatzaileak, guraso-hiltzaileak, lapurrak, eta nahas-mahas uzten gaituen jendalde hori, maiz animala huts izatera etorria. Eta ikusi nuen kristauen Jainkoa bat egiten zela haiekin, salbuespen eta bazterketarik egin gabe. Ez zen

soilik preso politikoen aristokraziarekin bat egiten, edo bidegabeki kondenatuekin, baizik eta delinkuente arruntarekin. Eta orduan ulertu nuen inongo fantasia erlijiosok ez zezakeela horrelako Jainkorik asmatu. Soilik gizadi ilun eta desesperatu horren kreatora bera identifikatu zitekeen jendalde horrekin”.

Jainkoak bizilekua sorkarrietan duela ikustea, eta Hura haietan sumatzea, ez doa kreatura horien portaeraren arabera (hori egitea da “normala” eta “naturala”); Jainkoa sorkarrietan sumatzea egin dezakegu bakarrik, bihotza eta begirada aldatzea Errukierrari uzten diogunean.

Bestearen duintasun erradikalaz, beste hori Jainkoarena delako, konbentzituta gaudenean bakarrik, natura Haren eskuek egin dela sumatzen dugunean bakarrik, garbitzen zaigu begirada, eta hasten gara dena “begi berriez” ikusten.

Ebanjelioko pasartea: Lk 13, 10-16

Behin batean, larunbatez, sinagoga batean irakasten ari zen Jesus. Bazen han, hemezortzi urte hartan espiritu baten menpe gaixo zegoen emakume bat: erabat konkortua zegoen eta ezin zen inola ere zuzendu. Ikustean, Jesusek deitu eta esan zion: «Emakumea, gelditu zaitez libre zeure gaitzetik». Eskuak ezarri zizkion eta bat-batean zuzendu zen eta Jainkoa gozosten hasi. Sinagogako buruzagiak, Jesusek larunbatez sendatu zuelako haserre, jendeari esan zion:

«Astean sei egun daude lanerako. Zatozte egun horietan sendatzera, eta ez larunbatean». Jaunak erantzun zion: «Itxurazaleok! Zuetako nork ez du larunbatez ere idia nahiz astoa ukuilutik askatu eta ura edatera eramaten? Eta Abrahamen ondorengo den honi, hemezortzi urtez Satanasek lotua eduki duen honi, ez ote zitzaion larunbatez lokarri hori askatu behar?»

Frantziskotar espiritualtasuna

Aldi hartan, bidelapur batzuk etortzen ziren noizik behin anaiek Borgo San Sepolcroren gainaldean zuten eremitoriora, anaiei ogia eskatzera. Lapur horiek probintziako oihanetan gordeta bizi ziren, baina noiz behinka haietatik irten eta galtzada eta bideetan ostu egiten zieten bidariei. Toki hartako anaia batzuek zera zioten: «Ez da bidezkoa halakoei limosna ematea, batik bat lapurrak direlako eta jendeari kalte asko eta larriak egiten dizkiotelako». Beste batzuek, berriz, apalki eta beharrak eraginda eskatzen zutela eta, eman egiten zieten batzuetan; hori bai, onbideratzeko gonbitea eginez.

Gauzak honela, Frantzisko dohatsua heldu zen leku hartara, eta anaiek galdetu zioten ea lapurrei ogirik eman behar zieten ala ez. Frantzisko dohatsuak erantzun zien: «... Zoazte eta lortu ogi eta ardo ona eta eraman iezazkiezue bizi diren basora, honela oihu eginez: “Anaia lapurrak, zatozte gugana; anaiak gaituzue eta ogi ona eta ardo ona dakarzkizuegu”. Haiek berehalaxe etorriko dira. Zuek, orduan, zabaldu zapia lurrean, ipini gainean ogia eta ardoa, eta zerbitza itzazue apal eta alai, jaten duten bitartean. Otordu ostean, esan haiei Jaunaren hitzak. Azkenik, lehen eskari bat egingo diezue...: hitzeman diezazuetela ez dutela inor joko, ez kalte pertsonalik egingo. Eta lapurrek eskari hori berehala aginduko dizuete, zuek erakutsitako apaltasun eta maitasunagatik.

Otoitza

Zuk ez duzu kreaioari aurka eginez maitatua izan nahi, kreaioaren bidez aintzatua baizik; emaguzu gaur eta egunero:

Erreala dena artatzea bere aberastasun eta aniztasunean.

Kemen apala, erabaki eta ekimenari heltzeko, asmatzea, eta are gutxiago arrakasta, bermatua eduki gabe.

Pazientzia epe luzera ernetzen denerako, lasterragotzea geure esku ez dagoen hartarako.

Berradiskidetuak bizitzea geure gorputzarekin, aurreikusi ezina, zaurgarria, adeitsua zaigunean.

Lana bere poz eta nekearekin, eta sufrimena lanik egin ezin dutenengatik.

Zabalik egotea defentsarik gabe besteen presentziaren aurrean, barru-barruan bisitatzen gaituztenean, uzten badiegu barrura sartzen duten aniztasun aldaezinarekin.

Horrela bakarrik ulertuko dugu zure gizon egitea. Horrela bakarrik bizi gaitzke enkarnaturik.

Gutuneko azken hitzak

“Soilik bihotzarekin ikus daiteke ongi; funtsezkoa begientzat ikusezina da.” (Saint Exupéry)

2018ko uztaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate uztaileko erreferentzia guztiak:

1 Mk 5, 21-43	8 Mk 6,1-6	15 Mk 6, 7-13	22 Mk 6,30-34	29 Jn 6,1-15
2 Mt 8, 18-22	9 Mt 9,18-26	16 Mt 10,34-11,1	23 Mt 12, 38-42	30 Mt 13,31-35
3 Mt 8, 23-27	10 Mt 9, 27-29	17 Mt 11, 20-24	24 Mt 12, 46-50	31 Lk 9, 18-26
4 Mt 8, 28-34	11 Mt 10,1-7	18 Mt 11, 25-27	25 Mt 20, 20-28	
5 Mt 9, 1-8	12 Mt 10,7-15	19 Mt 11,28-30	26 Mt 13, 10-17	
6 Mt 9, 9-13	13 Mt 10, 16-23	20 Mt 12, 1-8	27 Mt 13, 18-23	
7 Mt 9,14-17	14 Mt 10, 24-33	21 Lk 9, 1-6	28 Mt 13, 24-30	



Uztaileko Otoitza hilaren 26an izango da.